

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Euskara ikasteko diru-laguntzetarako deialdia eta onarpenerako oinarri arautzaileak. 2016. urtea

Udal honetako Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko maiatzaren 13. egunean izandako ohiko bilera, euskara ikasteko laguntzak emateko deialdia eta euren onarpenerako oinarri arautzaileak onartu ziren.

Hartutako erabakiaren laugarren atalean jasotakoari jarraiki eta azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 52.1. artikuluan xedatutakoa betez argitara ematen dira, objetibotasun, lehia eta publikitatearen printzipioak bermatu daitezzen.

Laudio, 2016ko maiatzaren 13a

Alkatea

JON IÑAKI URKIXO ORUETA

Oinarri arautzaileak

Lehenengoa. Helburua

Oinarri hauen helburua, Laudio Udalak bere Euskara Arloaren bitartez euskara ikasteko norgehiagokako erregimenean ematen dituen diru-laguntzen esleipena arautzea da. Beka hauek euskara ikasteko egon litezkeen oztopo ekonomikoak saihesteko ematen dira, euskara delako, legez, Euskal Herriko jatorrizko eta Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren eskubideko hizkuntza.

Deialdi honen bitartez, euskara ikasketetarako laguntzak emango dira, betiere, jarraian aipatzen diren motetako bat baldin bada:

1. Euskaltegi homologatuetan egindako euskara ikasketak, 2015eko urriaren 1etik 2016ko ekainaren 30era bitartean, biak barne. Ikastaro arruntak edo barnetegi izaerakoak izan daitezke.

2. Euskaltegi homologatuetan egindako udako euskara ikastaro trinkoak, 2016ko ekain, uztail, abuztu edota irailean. Ikastaro arruntak edo barnetegi izaerakoak izan daitezke.

Urrutiko irakaskuntza ikastaroak eta multimedia sistemen bitartekoak diru-laguntza deialdi honetatik kanpo geratuko dira, espresuki.

Diru-laguntzetarako bi ikastaro multzo hauek banan-banan tratatuko dira, hots, haietako bakoitzak berezko epeak, diru-mugak eta erabakiak izango ditu.

Bigarrena. Aurrekontua eta beken zenbatekoa

Deialdi honen bitartez emandako diru-laguntzen kopuru osoek ezingo dituzte ekimen honetarako alde aurretik ikusitako aurrekontuak gainditu. Honako hauek dira:

a) 2015/2016 ikasturteko eskaerretarako, 60.000 euro.

b) 2016ko uda ikastaroetako eskaerretarako, 6.600 euro.

Bestetik, balizko erreklamazioei aurre egiteko 500 euroko kopurua erreserbatuko da, laguntza multzo bakoitzari dagokion diru atala ahituko balitz, baliagarri izateko.

Deialdi honetarako aurreikusitako diru kopuruak nahikoak izango ez balira, udal honen Tokiko Gobernu Batzarrari legokioke ustezko erabaki egokiak hartzeko eskumena.

Deialdi honen ondorioz eratorritako 67.100 euroko gastu osoa Laudio Udalaren 2016. urteko aurrekontu nagusien 0900-3351-48101 ("Euskara ikasteko beka") diru sailaren karguan egingo da.

Hirugarrena. Onuradunak

Onuradunak Laudion erroldatuta dauden pertsona fisiko guztiak izan daitezke, betiere, deialdi honetako bosgarren oinarri arautzailean azaltzen diren eskakizun guzti-guztiak betetzen baldin baditu.

Kasuren batean eskatzailea Diru-laguntzetarako azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. atalean edo Laudio udalaren diru-laguntzen esleipenentarako ordenantzan laguntza horiek ezintasunerako zehazten diren egoeraren batean balego ezin izango luke deialdi honen onuradun izan.

Laugarrena. Bekak erabakitze irizpideak

Diru-laguntzak erabakitze orduan gastu lagungarria hartuko da kontuan eta gehienez ere haren ehuneko 50 eskuratzeko eskubidea izango du, beka gisa, deialdi honetako onuraduna izateko eskakizun guztiak betetzen baldin baditu. Hala ere, eskatzaileak gainerako eskakizunetaz gain, egiaztatuko balu egindako ikastaroak iraun bitartean, egunen erdian edo gehiagoan langabezian izan dela, orduan gastu lagungarriaren ehuneko 100raino eskuratzeko eskubidea izango du.

Eskaera guztiei aurre egiteko diru nahikorik balego, gastu lagungarriaren ehuneko 50 edo 100 ordainduko litzateke. Nahikorik ez izatekotan, ehuneko horiek txikituko lirateke aurrekontu baliagarria egokitu arte. Beken arteko banaketa proportzional hori atalka aplikatuko da, egindako ikastaro motaren arabera.

Gastu lagungarritzat hartuko dira ikastaro arruntetako eta barnetegietako matrikula gastuari dagozkionak. Ez dira, ordea, bidaiak, materialak, janaria, ostalua eta abarren gastuak lagunduko.

Edozein modutan ere, 2016. urtean eskatzaile batek jasotako beka guztien batuketak ezingo du 1.000 euroko muga gainditu, nahiz eta ikastaro ezberdinetakoak izan.

Euskara ikastaroak laguntzeko beka, diru-laguntza kontzeptu gisa emango dira eta, ondorioz, berezko ezaugarri guztiak hartuko dituzte tramitatzera. Hortaz, Araba Lurralde Historikoan Diru-laguntzen eta Transferentzien otsailaren 7ko 3/1997 Diputazioaren Arauari, Diru-laguntzetarako azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrari, Udalen Zerbitzuen Araudiari eta bestelako lege osagarriei lotuko dira, hala nola diru-laguntzen udal ordenantza arautzaileari.

Bosgarrena. Bekak lortzeko baldintzak

Deialdi honen bitartez emango diren laguntzen onuraduna izateko honako betekizun hauek bete behar dira, halaberrez:

a) Euskara ikasteko ikastaro bat egina izatea, deialdi honetako lehenengo oinarrian aipatutako epeen barruan eta euskaltegi homologatu batean.

Arestian aipatutako ikastaro horietako bat bere osotasunean sartuko ez balitz deialdi honetako egutegi-tarteetan, laguntza ematerakoan epe horren barruan dagoen egutegiko egun kopurua hartuko da kontuan eta horren arabera kalkulatu da laguntza. Edozein modutan ere, epe horretatik kanpo geratzen diren ikastaro-egunak beste laguntza multzo edo geroko deialdi batera aurkeztu ahal izango dira.

b) Laudio herrian erroldatuta egotea ikastaroa gauzatu bitartean.

Ikasturteko egun guztietan erroldatuta egon ez direnen kasuak, banaka aztertu eta erabakiko dira.

c) Gutxienez ikastaroko eskola-orduen ehuneko 85eko bertaratzea izatea. Datu hori egiaztatzeko onartuko den agiri bakarra euskaltegi-zuzendariak egindako egiaztatzea izango da.

Egiaztatze honen bidez eskaintako eskola-orduak eta ikasleak baliatutakoak, hala nola, kopuru bien arteko ehunekoak. Bestetik, egindako ikastaroaren hasiera eta amaiera egunak jasoko dira eta baita ere ikasleak egindako ikasketen datak aurrekoekin erkatuta, ezberdinak balira (ikastaro osotasunean egin ez den kasuetan). Aurrekoen gain, ikaslearen datu pertsonalak aipatuko dira (izen-abizenak eta NAN) eta matrikula gisa ordaindutako kopurua.

d) Audio Udalak emandako datuak egiaztatze egin litzakeen azterketak onartzeko prest egotea, baita egiaztatze edo finantza kontrolerako eskumena duten organo nazionalak edo Europako Erkidegokoek eskatzen dutenean ere. Kasu guztietan beka-eskatzaila prest egongo da eska lekiokien informazio guztia emateko.

e) Egiaztatze beka eskatzaileak ez duela zorrik Gizarte Segurantzarekin eta Foru Aldundiarekin.

f) Egiaztatze beka eskatzaileak ez duela zorrik Audio Udalarekin.

g) Egiaztatze egindako ikastaroak iraun bitartean egunen erdian edo gehiagoan langabezian izan dela. Eskakizun hau gastu lagungarriaren ehuneko 100erainoko laguntza eskaera egin nahi dutenei baino ez zaie eskatuko.

Lanean izandako egunak zenbatzean lanaldi osoak hartuko dira kontuan. Lanaldi murriztuen kasuetan, orduak batuko dira lanaldi osoarekin baliokide izan arte.

h) Udalarik jakinaraztea euskara ikastaroa egiteko lortu edo eskatu dituen beste diru-laguntzak. Nolanahi ere, jasotako diru-laguntza guztien batuketak ezingo du ikastaroaren gastu lagungarria gainditu.

i) Beste diru-laguntzarik lortuz gero, jasotakoa egiaztatzen duten agiri guztiak gordetzea, baita elektronikoa ere, balizko egiaztatze eta kontrol jardueretarako.

j) Eskabidean eta emandako dokumentazioan jasotako datuak egiazkoak izatea. Dokumentazioan edozelako faltsukeriarik aurkituko balitz, diru-laguntzaren galera zuzena ekarriko luke.

Seigarrena. Aurkezteko dokumentazioa

Honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

1. Eskabide-inprimaki normalizatua, datu guztiak beteta.
2. Ikastaroaren matrikula ordaindu izanaren agiria.
3. Euskaltegiko zuzendariaren ziurtagiri bat, ikasleari, ikastaroari eta bertaratzeari dagozkion datuekin.
4. Zinpeko aitortzen bat adieraziz zein diren euskara ikastaro horretarako gainerako erakunde publiko edo pribatuei eskatutako diru-laguntzak. Eskaera horiek erabakitzeko baleude, erabakia hartu eta berehala jakinarazi beharko zaio udalari.
5. Zinpeko aitortzen bat adieraziz eskatzailea ez dagoela Diru-laguntzetarako azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13 artikuluen 2. eta 3. atalen aplikazioaz laguntza publikoak eskuratzeko legez ezinduta.
6. Eskatzailearen Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.
7. Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak luzatutako agiri bat ikastaroak iraun duen bitartean eskatzaileak izandako lan-bizitza egiaztatze. Agiri hau aurkeztea aukerakoa izango da, eta ez aurkeztekotan ulertuko da eskatzailea ez dela langabezian izan ikastaroak iraun bitarteko egunen erdian edo gehiagoan.

Administrazioak bere esku dituen beste agiriak ez dira aurkeztu beharko, betiere eskatutako prozeduraren amaiera epeetik bost urte igaro ez direnean eta dokumentazioa aurkeztu zeneko data eta erakundea zehazten denean, Diru-laguntzen Lege Orokorraren 23. artikulua zehazten duenari jarraituta. Iraungipen data duten dokumentuak (zerga ordainketetan egunean izatea, e.a.) aurreikuspen honetatik kanpo geratzen dira.

Zazpigarrena. Eskaerak aurkeztea eta epeak

Eskaerak Audioko Udaletxeko Idazkaritza Nagusian (Herriko plaza, z/g 01400 Audio) aurkeztu beharko dira edo, baita ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean zehazten den moduetan.

Eskaerak aurkezteko epeak urtarrilaren 2an hasiko dira eta ondoko egunetan amaituko dira, ikastaro motaren arabera:

– 2016ko uztailaren 15ean, 2015eko urriaren 1etik 2016ko ekainaren 30era bitartean egindako ikastaroetarako.

– 2016ko urriaren 18an, 2016ko ekaineko, uztaileko, abuztuko edota iraileko udako ikastaroetarako.

Aurkeztutako dokumentazioan hutsune edo okerrik balego, eskaera aurkezten denetik hasita hamar eguneko epea emango da zuzentzeko.

Zuzenketetarako emandako epe horretan konponduko ez balitz, eskaera artxibatu eta balio administratiborik gabe geratuko litzateke.

Zortzigarrena. Balorazio irizpideak

Deialdi honetako bosgarren atalean adierazten diren betekizun guztiekin bat etorritik gero, beka eskuratzeko eskubidea izango da, betiere aurrekontu nahikorik egotearen baldintzapean.

Bederatzigarrena. Azterketa, erabakia eta eskumeneko organoak

Ikastaro modalitate bakoitzeko eskaerak batera aztertu eta erabakiko dira, behin eskabideak aurkezteko epea amaituta, betiere kontuan izanda ikastaro mota bakoitzak berariazko epea, diru-kopurua eta erabakia izango dituela.

Behin eskaerak aztertuta, txosten tekniko bat prestatuko da, geroko erabaki-proposamenaren oinarria izango dena. Txosten horrek Euskara Arloko zinegotzi ordezkari laguntzailearen oniritzia izango du.

Behin-betiko erabakia Alkatearen dekretu bidez hartuko da, Euskara Arloko zinegotziaren proposamenaz. Erabaki horren berri emango zaie Tokiko Gobernu Batzarreko kide guztiei, erabakia hartu ondoren egingo den hurrengo bileran.

Erabakiak onuradunen izen-deiturak eta dagokien diru-kopuruak jasoko ditu. Laguntza ezeztatu den kasuetan horretarako arrazoiak adieraziko dira.

Kasua edozein izanda ere, hartutako erabakiaren kontra egin ahal izango da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legean, azaroaren 26koan eta aurrekoaren egokitzapenerako 4/1999 Legean, urtarrilaren 13koan, adierazitako moduetan.

Udalak, hala baleritzo, aurkeztutako dokumentazioa aztertzeko eta baloratzeko bestelako datu eta argibideak eska litzake. Datu osagarri horiek hamar eguneko epean eman beharko dira, bestela espedientea artxibatu eta baliogabetuko da.

Eskatzaileek egindako erabakiaren aurkako inpugnazioak Tokiko Gobernu Batzarrak erabakiko ditu.

Hamargarrena. Jakinarazpena eta ordaintzeko era

Behin Alkateak erabakia hartuta, horren berri jakinaraziko zaie eskaera egin duten guztiei, gehienez ere, hamar eguneko epearen barruan.

Diru-laguntza onartzeak ibilbide administratiboaren amaiera dakar.

Deialdi honen eta honen bitartez eratorritako jardueren kontra egiteko aukera dago, bestiere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legean, azaroaren 26koan eta aurrekoaren egokitzapenerako 4/1999 Legean, urtarrilaren 13koan, adierazitakoari jarraikiz.

Hamaikagarrena. Diru-laguntzen mugak

Deialdi honen edo bestelakoan bitartez hartutako laguntzen batuketak ezingo du, inolaz ere, onuradunak egindako ikastaroaren gastu lagungarriaren kopurua gaintitu.

Behin jakinda beste erakunde batzuek jarduera berari esleitutako laguntzak, Euskara Arloak onartutako diru-laguntza berriro azter dezake, gain-finantzaketa kasurik ez izateko.

Hamabigarrena. Kontrola

Diru-laguntza ematen duen organoak beharrezkotzat jotzen dituen administrazio kontrolak eta ikuskaritzak egin ahal izango ditu, aurkeztutako dokumentazio datuak egiazkoak diren edo diru-laguntza jaso ahal izateko jarritako eginbeharrak betetzen dituen egiaztatzeko.

Onuradunak, balizko ikuskaritzan laguntza eman beharko du eta eskatutakoak lortzen erraztasunak emango ditu.

Hamahirugarrena. Diru-laguntzaren galera

Beherago zehazten diren baldintzetako bat beteko ez balitz, onuradunak diru-laguntzarako eskubidea galduko luke. Hala izanez gero, Euskara Arloak berak jakinaraziko lioke hartutako diru-laguntza itzultzeko beharra. Honi, berandutzeko interesak gehitu litzaizkioke, beka ordaintzen den egunetik hasita. Jasotako diru-laguntza itzultzeko espedientea Euskara Arloko zinegotzi ordezkari laguntzaileak egindako proposamenaren bitartez ipiniko da abian eta Tokiko Gobernu Batzarrak erabakiko du.

Honako hauek dira jasotako laguntza galtzea eragingo duten kasuak:

- a) Eskieran edo atxikitako informazioan aurkeztutako datuen bat faltsutu denean.
- b) Bekaren diru-kopurua, bai bakarka bai beste erakunde publiko zein pribatuek emandako laguntzekin batera, onuradunak aurkeztutako gastu lagungarria gaintitzen denean.
- c) Nahiz eta Udalak onartua izan laguntzen behin-betiko kitapena, beste erakunde pribatu zein publikoek onartutako beka Udalari jakinarazten ez zaizkionean.
- d) Oro har, oinarri hauen bitartez onuradunei ezartzen zaizkien betekizunak betetzen ez direnean.

Hamalauugarrena. Arau-hauste eta zigorrak

Oinarri hauetan jasotako arauen bat urratuko balitz, onartutako laguntza galduko litzateke eta, horrez gain, arau-hausteen erregimenean eta dagozkion azaroaren 17ko Diru-laguntzatarako 38/2003 Lege Orokorraren V. Tituluan jasotako zigor administratiboenean sartuko litzateke eskatzailea.

Hamabosgarrena. Garapena, interpretazioa eta zabalkundea

Udal honetako Tokiko Gobernu Batzarra izango da deialdi hau garatzeko neurri egokiak onartuko dituena.

Halaber, udal honetako Tokiko Gobernu Batzarrak argituko ditu deialdi honetatik sor daitzekoen interpretazio zalantzak.

Deialdi hau ALHAOn, udal webgunean (www.laudio.eus) eta ZUIN udal argibide-orrian haren berri argitaratuko da, ahal denik eta zabalkunderik handiena ematen saiatuz.

Deialdi eta oinarri hauek indarrean sartuko dira, behin testua bere osotasunean ALHAOn argitaratu eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 62.5 atalean zehazten den hamabost eguneko epea igarota.